



## **NIKOLAS LEKUONA VIII. ESTATU MAILAKO ARGAZKI LEHIAKETA, 2019**

### **1. PARTE-HARTZAILEAK**

Nazio-lurraldean bizi diren pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute (profesional izan edo afizionatu) eta CEFeko kide guztiek.

Lehiaketak CEFen babesaraz (E-2019-7) eta EHATEren (001/2019) babesaraz du. Elkarte hauen arauak zuzentzen dute lehiaketa eta CEF tituluak lortzeko puntuagarria da eta EHATEk antolatutako Argizaiola lehiaketan sailkatzeko balio izango du.

### **2. MODALITATEA**

Paperean aurkezturiko lanak bakarrik onartuko dira.

### **3. GAIAK**

Irekia (Zuri-beltz edo koloretan, nahi bezala)

### **4. LANAK**

Aurreko edizioetan saritu gabeko 4 argazki gehienez, argazkilari bakoitzeko.

### **5. FORMATUA**

Tamaina librea, baina 40x50ko passepartout-ean muntatuak, 3mm-ko gehienezko lodierarekin. Katalogorako aukeratzen bada, derrigorrezkoa izango da 300ppp-ko erresoluzioan eta zm-tan neurri bera duen artxibo digitala bidaltzea. Antolatzaileak horren berri emango dio argazkilariari.

### **6. IDENTIFIKAZIOA**

Argazki bakoitzaren atzealdean, argazki bakoitzaren izenburua eta argazkilariaren identifikazioa agertuko dira. Argazkiekin batera behar den bezala betetako inskripzio-fitxa aurkeztu beharko da.

### **7. BIDALKETAK**

Pozta bidez, hurrengo helbidera:

**ASOCIACION FOTOGRAFICA ORTZADAR ORDIZIA**  
**Apdo. de Correos Nº 79**  
**20240 Ordizia**  
**GIPUZKOA**

Eskura aurkeztu, edo mezularitzaren bidez:

**BARRENA KULTUR ETXEA**  
**Nikolas Lekuona plaza, 1**  
**20240 Ordizia**  
**GIPUZKOA**

## **8. EPAIMAHAIA**

Ordiziako Ortzadar Argazki Elkarteak izendatuko du eta argazkigintzan entzutetsuak diren pertsonak osatuko dute.

## **9. SARIAK**

Sari nagusia: **CEFen urrezko domina, eta 300 € dirutan.**  
Bigarren saria: **CEFen zilarrezko domina, eta 200 € dirutan.**  
Hirugarren saria: **CEFen brontzezko domina, eta 100 € dirutan.**  
**6 Ohorezko Aipamen, CEF Diplomak**  
Herrikoen saria: **100 € dirutan.**

**\*\* Argazkilari bakoitzak ezingo du sari bat baino gehiago irabazi. \*\***

## **10. EGUTEGIA**

### **Aurkeztuko epeak:**

Azken eguna, **2019ko apirilaren 12a**. Postaz bidalitako argazkientzako, zigilu-markaren data hartuko da aurkezpen data bezala.

### **Epaimahaiaren epaia edo erabakia:**

**2019ko Apirilaren 27an**, larunbata. Epaia publikoa izango da eta Ordiziako Barrena kultur etxeke Ortzadarren lokalean emango da. Egun batzuk lehenago Ortzadarren webgunean <http://ortzadarordizia.blogspot.com.es/> epaiaren eguna argitaratuko da.

### **Sarien banaketa eta erakusketa:**

Sariak Barrena Kultur Etxean banatuko dira 2019ko Maiatzaren 31an, 19:00etan. Lanen hautaketa bat, Barrena Kultur Etxean egongo da ikusgai Maiatzaren 31etik Ekainaren 14ra arte. Orduetgia 18:00etatik 20:00etara izango da. Igandetan itxita.

## **11. KATALOGOA**

Argazki katalogo bat argitaratuko da eta partaide guztiei bidaliko zaie. Bertan saritutako lan guztiak eta hautatutako lanen bilduma zabal bat argitaratuko da eta bertan egileen izenak azalduko dira.

## **12. ERAKUSKETA**

Aurkeztutako lanen artean hautatutako sorta bat Barrena Kultur Etxeko erakusketan ipiniko dira.

## **13. LANAK ITZULTZEA**

Antolakuntzak saririk jaso ez duten lanak itzuliko ditu, erakusketa itxi eta hurrengo hilabetean zehar.

## **14. OHARRAK**

Lehiaketa honetan parte hartzeak, oinarri hauek onartzea dakar. Hemen agertzen ez den edozein gorabehera sortuz gero, antolatzaileek erabakiko dute zer egin horren inguruan.

Saritzen diren lan guztiak antolatzaileen esku geratuko dira, helburu komertzialik gabe erakutsi edo argitaratzeko eskubidea ere berea izango da, eta beti egilearen izena aipatuko da.

Parte-hartzaileek, aurkeztutako argazkien irudi eskubide eta jabetza intelektualari buruzko legezko xedapenak betetzearen ardura bere gain hartzen dute. Horrekin batera, lehiaketaren esparruan eta oinarrien eremuan, parte-hartzaileek adierazten dute argazki hauen zabalpenak edota erreprodukzioak ez diela hirugarrenei kalterik egiten, eta gai honen inguruan sor daitekeen ardura guztia bere gain hartzen dute.

Antolatzaileek ez dute bere gain hartuko, euren borondatearen kontra gerta daitekeen argazki galtze edo hondatzerik, hauen erabilpenean ahal den kontu handiena jarriko delarik.

Edozein zalantza edo kontsultarako: [concurso.nikolaslekuona@gmail.com](mailto:concurso.nikolaslekuona@gmail.com)